2. mailako *Hirigintza I: inguru fisikoa* irakasgaia. 2013-2014 ikasturtea

1. ariketa (eskualdearen eskala)

Eskualdearen azterketa



Aurtengo tailer bateratuko praktika Donostian denez, *Hirigintza I: inguru fisikoa* irakasgaiko ikasleek, taldeka, Urumea bailararen azterketa hirukoitza egin beharko dute:

1. Urumea ibaiaren arro hidrologikoaren mugaketa eta azterketa morfologikoa: erliebea (hipsometria + itzalak, eguzkiak ipar-mendebaldetik joko balu bezala + 2 sekzio) eta hidrologia.
2. Urumea bailarako lurralde mailako sistema orokorren azterketa (autobideak, autobiak eta errepideak; bide historikoak; trenbideak, daudenak eta eraikitzen ari direnak; urtegiak; araztegiak; parke eolikoak; natura-gune babestuak; base militarrak, kartzelak…).
3. Urumea bailarako giza-finkamenduen azterketa, herrien kokaguneen zergatia azalduz (grafikoki, ahal bada).

Ariketa din A-3 tamainako 3 planotan emango da, urriaren 23ko (asteazkena) eskola teorikoaren hasieran. Ez ahaztu plano bakoitzaren izenburua, eskala eta legenda ondo adierazten.

Oharra: EAEko kartografia bektoriala http://www1.euskadi.net/cartografia/visor_euskera/home.htm webgunean duzue (1/400.000 eta 1/10.000 eskalen artean); Nafarroakoa, http://www.navarra.es/appsext/tiendacartografia/seleccion_hoja.aspx?idp=13 webgunean (1:10.000 eskalan); eta, Gipuzkoakoa, http://b5m.gipuzkoa.net/web5000 webgunean (1/5.000 eskalan).

Donostian, 2012ko irailaren 25ean

Irakasleak: Bixente Taberna eta Unai Fdz. de Betoño